

# IN MEMORIAM



**Luis Villasante Kortabitarte (Errenteria, 1920/03/22-Arantzazu, 2000/12/02)**  
**Bitoriano Gandiaga (Mendata, 1928/10/08-Arantzazu, 2001/02/21)**

Elixabete Perez

Oso tarte laburrean, hiru hilabete doi, euskal kulturaren bi erraldoiok eraman dizkigu heriok. Bi frantziskotarron heriotzak ez gaitu ustekabeen harrapatu, egia, baina badirudi orduantxe hasten garela konturatzen inoiz baino argiago gure artean ez daudenek utzi diguten hutsunearen luze-laburraz eta sakontasunaz; orduantxe orain bizi dugun egoerak zenbateraino egiten gaituen aurrekoen zordun. Hain bestelako, baina aldi berean, hain kide sentitzen ditudan bi frantziskotarron oroigarri eta omenaldi xumea izatea nahi nuke nire OARSoko aurtengo lantxo hau.

Oso maitea dut Mendatako poeta handia. Oraindik ere gogoan dut unibertsitatean ikasten ari nintzela Joxe Azurmendi irakasleak behin eskolara ekarri zigula poesiaz, bizitzaz... hizketaldia izateko. Lotsati agertu zitzaigun 19-20 urteko neska-mutilen aurrean. Hala ere, gure galdera guztiei erantzun zien, baina begiak mahai gainetik altxa gabe. Egun hartan seguru naiz gauza interesgarri asko esan zizkigula Gandiagak, baina niri bat geratu zait oroimenean iltzatuta beste guztien gainetik: San Juan sua itzalduxe zegoenean larrera atera eta ihintzak bustitako belazeetan etzaten zela biluzik. Naturarekin gorputzez eta arimaz bat egite hori betiko dut gogoan eta bere poemak irakurtzen, edo bere ahotsaz nahiz kantarienez entzuten ditudanean batasun hori dut beti gogo-lagun.

Guztiarekin ere, Luis Villasante Kortabitartez ariko naiz hemen, gertuagotik ezagutzeko eta sakonago aztertzeo aukera izan baitut.

Halabeharrak eraman ninduen Arantzazura pasa den abuztuko egun eguzkitsu batean eta hantxe izan nuen bi gizonokin hitz egiteko aukera. Eguneroko paseotxoia egitetik etorri ziren biok Arantzazuko liburutegira, Gandiaga poeta Villasante prosagilearen itsumutil. Askotan bezala, bidean argudioan aritu zirela esan zidan Bitorianok: poetak, San Juan Gurutzekoa nahiago, prosalariak, berriz, Fray Luis Leongoa begiko; biek mistikoak maiteen. Horrela aritzen omen ziren beti, erdi brometan, erdi serio.

Gorputzak besterik bazioen ere, buruak ez zuen garai bateko Luis Villasanteren antz handirik. Egunero-egunero idazten jarraitzen zuen (erlijioko gauzez), baina Luis Villasante ez zen bere historiaren jabe. Hala ere, gordetzen zuen iraganarekin lotzen zuen hari mehe baina sendo bat: Ajangizko Erreterian jaioa zela. Jaioterriaren kontua umoregai bihurtua zuten, nonbait, otorduetan: zirikatu nahian frantziskotar umoretsu batek Erreteria Gernikakoa zela esaten omen zion eta Villasantek beti ezetz, ez zela Gernikakoa, Ajangizkoa zela. Arrazoi zuen aita Villasantek, jaio zenean Ajangizko udalerrikoa baitzen Erreteria auzoa, nahiz eta 1943tik aurrera Ajangiz (eta Erreteria) Gernikako barrutikoa den. Baina, hor geratu bide zen Luis Villasanteren oroimena.



Arantzazutik nentorrela nere buruari galdetzen nion onenak emanda zegoen gizon hark zenbat eta zenbat bizikizun, gertakari, une latz eta goxo ez ote zituen betiko urratuak bere gogotik. Baina hau tristea eta larria izanagatik, askoz larriagoa iruditzen zait gaixotasunak lapurtu zizkionak guk ere atzentzen uztea.

Luis Villasantek ez zuen bizimodu samurra izan, makina bat gezur ere zabaldu zen bera zela medio, baina jakin zuen gertakari latzen gainetik, askoren burla eta iseki ("frailecillo" deitu zionik izan zen) muzin egin eta apal, beti lanean aurrera egiten, baita erabaki tinkoak hartzen ere, behar izan zenean.

Aita guardia zibila zuelako zurrumurua ere zabaldu zuten batzuek; ez da egia. Aita (Jose Villasante Martínez) Burgoskoa zuen (Cadaguakoa), errentalaria. Ama (Luisa Kortabitarte Gerrikaetxebarria), berriz, Aulestikoa. Sei urte zituenean ama hil zitzaion eta haren ordez Aulestiko lehengusu bat (Bizenta Kareaga) etorri zitzaien laguntzera. Honi esker ez zuen Luisek euskara galdu: aitarekin gaztelaniaz eta Bizenta amaordearekin

euskaraz aritzen zen. Noizbait norbaitek, eta ez oso asmo zintzoz, esan zuen euskaldun berria zela (Koldo Mitxelenagatik ere beste horrenbeste esan zen); ez da horrela, euskara eta erdara biak entzun eta erabili zituen txikitatik Luisek.

Gauza jakina da Arantzazura eraman zuela aitak ikasketak sakontzera eta Urbiako paraje haiek betiko bereganatu zutela. Han ikasten zebilela harrapatu zuen 1936ko gerrateak. Etxera itzuli behar izan zuten ikasle guztiek eta horrela, Villasantek bere begiz ikusi eta sufritu behar izan zuen 1937ko apirilaren 26ko gertaera latza: Gernika suntsitzea. Berak kontatzen du aita ondoezik zutela eta zeuden ezkutalekutik silla bat hartzera joan zela etxera: aitaren erlojuak besterik ezin izan zuen salbatu txikiziotik.

Arantzazu aipatu dugu, Arantzazu eta Villasante erroitik lotuta baitaude alde askotatik. Euskara lokarri dutela, Arantzazu-euskara-Euskaltzaindia uztarri ezinbestekoa dugu Villasanteren bizitzan. Hantxe konturatu zen lehen aldiz euskalkiak bazirela, beste leku askotako ikasle euskaldunekin tratuan. Aurkikuntza honetatik atera zuen irakaspidea guztiz funtsezkoa izan da eta da guztiontzat: euskalkiak maitatzeak, lantzeak, ikasteak eraman zuen, hain zuzen, batasuna zein ezin utzizkoa zen ikustera. Eta horrexegatik, aurrerago, irakasle zela, nahasten zituen euskalki desberdinetako ikasleak, besteen euskalkien berri izan zezaten.. Honela dio berak:

*Egia da batasuna behar-beharrezkoa dabela euskereak, biziko bada. Baina horrek ez dau esan gura, beste aldetik, euskalkiak edo dialektuak baztertu edo galazo behar diranik. Bai batarentzat eta bai besteentzat be geratuten da tokia. Idazmota batzuetarako egokiagoak gerta daitekez euskalkiak. Eta hauxe da Euskaltzaindiaren jarrera auzi honetan. (Villasante, L., 1992, “Gernikako udaltxean”, Euskera 37 (1992,2) 712.or.).*

Euskara (idatziaren) batasuna eta euskara zernahi adierazteko gai izatea, hona Villasantek barren-barrenean bizi zituen kezak. Horrexegatik hurbildu zen Euskaltzaindira: Euskaltzaindian sartzera zihoala eta Federico Krutwig-ek sarrera-hitzaldia egin behar zuela jakin zuen (1950ean). Gaia guztiz erakargarria iruditu zitzaion Villasanteri: kultura hitzak euskaraz nola eman. Villasanteren hain bestelakoa zen Krutwigek, hain justu, zabaldu zizkion aita Villasanteri Euskaltzaindiko ateak. Baina harreman honetan ere izan zen gertakari mingarririk: 1952ko maiatzaren 23an egin zuen sarrera-hitzaldia Villasantek (“Literatur-euskara Laphurrartarr Klassikoaren gain eratu”), eta Federiko Krutwig izan zuen erantzun-emaile. Krutwigek erantzunean esanak ez ziren denen gustukoak izan, elizaren eta orduko agintarien jokamoldea gogor salatu baitzituen, eta, horren ondorioz, ihes egin behar izan zuen, polizia atzetik zuela. Gertakari honek berebiziko samina utzi zion Villasanteri.

Krutwigekin ez ezik, Koldo Mitxelenarekin ere oso harreman estua izan zuen Villasantek: Villasante Bizkaiko errenteriarra izan zen, hain zuzen ere, 1961ean euskaltzain oso izendatu zutenean Koldo Mitxelena Gipuzkoako errenteriarra egin zuen sarrera-hitzaldiari erantzun ziona.

Arantzazun egin zen (berriz ere Arantzazu) 1968ko Euskaltzaindiaren Biltzar sonatua. Ez zen orduan Villasante euskaltzainburua, On Manuel Lekuona baizik, baina Villasantek aurkeztu zituen txostenak (“Batasunari buruzko bibliografia” eta “Antziñako euskal hitzen formaz”), K. Mitxelenaren eta J.M. Satrustegiren txostenekin batean (“Euskararen batasun-bideaz” batez ere), besteak beste, hagitz garrantzizkoak izan ziren euskara batuaren zura eta lehen harriak paratzen hasteko.

Villasante euskaltzainburu hautatu zutenetik (1970/10/25), eta nahiz eta orduko giroa aski bortitza izan, Euskaltzaindiak beste ibilbide berri bat hasi zuen, Luis Villasante lemazain zuela: Euskaltzaindiaren barrenko araudia berritu, batzordeak sortu, ikerlanak sustatu erabakiak taxuz hartu ahal izateko, autore zaharrak berreskuratu eta aztertu, bertsolari-txapelketak antolatu, “Bai Euskarari” bezalako kanpaina arrakastatsuak antolatu..., baina hau guztia jende jantzia ongi lagunduta: Koldo Mitxelena (hizkuntzalaritza-filologietan aditua), Jose Luis Lizundia (lege eta idazkari-

tza kontuetan) eta beste hainbeste... Entzun eta, etenik gabe, aurrera egiteko erabakiak hartzen joatea izan zuen burubide Villasantek.

Bestalde, gogoan izan behar da Euskaltzaindia ez zela erakunde ofiziala, ez zuen aginte politikoaren onespren eta aitortza berariazkorik. Gernikako Estatutuaren ondorioz, 1976ko otsailaren 26ko dekretuan, Espainiako Erregeak erakunde ofizial bilakatu zuen, honek dituen ondorio guztiakin. Estatutuan eta Nafarroako Amejoramenduan Euskaltzaindiari aitortzen zaio, hain zuzen ere, euskara-kontuetan aginpidea izatea.

Luis Villasante euskaltzainburu izan zen aldia –1970etik 1988ra doazen hemezortzi urteak– duda-izpirik gabe Euskaltzaindiarentzat oparoa izan zen, oso, eta oparotasun horretan ez zuen ikuskizun gutxi izan Luis Villasanteren adimen argiak, lanerako gogoak eta esku zuzenak. Eta hau guztia jomuga argi bati begira: sortzetik beretik Euskaltzaindiak eginkizun zuen lanik premiazkoenari, euskararen batasunari begira, alegia. Baina, esan dugun moduan, euskara batua eta euskalkiak elkarren arteko lehian paratu gabe, batuak euskalkien esparrua mendeko hartu gabe: zein bere tokian, zein bere eginkizunetarako.

Luis Villasantek, aipatutako lanez gain, argitaralan asko ere utzi dizkigu (750etik gora jasoak ditu J.A. Arana Martijak bibliografian: liburuak, artikuluak, hitzurreak, pres-talanak...). Hor izango ditugu beti gizon haren lan-ahalmenaren lekukoak irakur eta aztergai. Halaz guztiz, nago besterik ere utzi digula aita Villasantek: bere gizalegea. Horrenbeste eman digun eta horrenbeste zekien gizon honek, ez zuen sekula bere burua gehiegi nabarmendu nahi izan, ingurrien antzera, apal eta bakezale, baina aldi berean sendo aritu eta mintzatu zitzaigun beti.

Badaude, nire ustez, Aita Villasanterekin lotzen gaituzten gauzak: Errenteriarra zen (Bizkaikoa bazen ere), gure herriko etxe askotan bezalaxe guraso bat bertakoa eta bestea beste herri batekoa zituen, etxean bai euskaraz bai gaztelaniaz entzun eta ikasi zituen.

Baina ez genioke gere buruari mesede kaskarra egingo bestelakoetan ere gogai-de eta lankide izango bagenu: eginez egin zuen aurrera; entzuten bazekien; nortasun handikoa eta iritzi sendokoa zen, baina amore ematen ere bazekien; euskara maitatze-ak ez zion gaztelaniari ere zion maitasuna ukatzera eraman, biak maite zituen; hala-ber euskara batua eta euskalkiak, denak ziren harentzat euskara eta denak elkarren lagungarri eta aberasgarri.

Euskararen aurrerabidean ezinbestekoa, langile porrokatua, argia, egoera zaile-netan ere irtenbide bila zebilena, bakezalea, eta gainera, apala, bere burua sekula nabarmen utzi nahi ez zuena. Hauxe genuen, niretzat, Luis Villasante Kortabitarte.

*Baina honako hau bere esan gura dot: nire euskal bidea beti izan dala euskerearen aldekoa eta ez inoren kontrakoa, euskara lantzea eta bultzatzea, baina burrukak eta bortizkeria alde batera itzirik. (Villasante, L., 1992, "Gernikako udal-etxean", Euskera 37 (1992,2) 711.or.).*

Arantzazun zuten Villasantek eta Gandiagak bizitokia, hantxe bilatzen zuten beta irakaskuntzak uzten zizkien tartetean bestelako lanak ondu eta eskuzabaltasun osoz gero guri emateko. Aizkorriren magalean aurkitu dute bere anaien artean betiko bakea. Goian beude.